





AGINTARIEK ONARTU BEHAR DUTE KLIMAREN ARGI GORRIA PIZTUTA DAGOELA



Hamaika urte ditugu, 10+1, klima aldaketaren martxa eroa mantsotzeko. Berandu da, baina ez beranduegi. Lehenagoko egoerara ezin gara itzuli, baina gure esku dago ahalik eta kalte gutxien sortzea, natura kaotikoari neurria hartzen saiatzen garen bitartean. Lorea Flores Hego Euskal Herriko Greenpeaceko arduraduna da. Berak jarri digu puntua.



REYES ILINTXETA



DANI BLANCO

Nondik datorkizu naturarekiko grina?

Betidanik izan dut. Hasieran albaitaritzak ikasi nahi nuen betidanik izan dudalako animaliekiko atxikimendu handia. 8 urte nituela etorri ginen Lesakara bizitzera, baina gogoratzen dut Iruñean bizi ziren atautxi eta amautxirekin askotan joaten ginela mendira eta Taxoaren zuten baratzera. Landareak eta animaliak ikusten genituen eta amautxik beti azaltzen zigun animalia txikieneke ere berebiziko garrantzia dutela eta ez dutela zertan txarrak izan. Erleei, adibidez, ez genielako beldurrik izan behar esaten zigun. Hori dena izugarri gustatzen zitzaidan.

Ibaien ekologian aditua zara. Zertaz egin zenuen tesia?

Egur hila ibaian birsartzeak ibaien prozesuetan eta bertako bizidunengan dituen eraginak aztertu nituen. Egur hilak laguntzen dio ibaiari forma bat hartzen, bertako sedimentuei eusten eta bertako bizidunentzako habitata ziurtatzen. Hori dena, tamalez, hemen ez da errespetatu urtetan eman den basoen ustiapen ereduagatik. Behin eta berriz esaten da hobe dela errekek garbi egotea, hau da, enbor, harri handi eta bestelako "oztoporik" gabe, baina erreka batek elementu horiek behar ditu bere ekosistema sendo mantentzeko.

Presek ere preso edukitzen dute erreka?

Hala da. Mozten dute ibaiaren jarraikitutasuna, traba dira bertako animalientzat eta aldatzen dituzte uraren ezaugarri fisiko-kimikoak eta tenperatura. Ekosistema guztiz aldarazten dute. Hemen ez da gelditzen ibai librerik. Artikutzan ere, nahiko toki naturala, ikusten da gizakia- ren eskua noraino iritsi den eta nolako aldaketak dauden ubide guztietan.

Nola iritsi zara Greenpeaceara?

Ikerkuntzan aritu naiz orain arte, baina gero eta gehiago eskatzen zidaten kanpura joateko, eta gainera, mundu hori

Lorea Flores Compains

IRUÑEA, 1985



Iruñean sortu eta txikitatik Le-
sakan bizi da. EHUn Biologia
ikasi zuen. Ikerkuntzan aritu
izan da lanean, lehenbizi EHU-
ko Ibaian Ekologia Taldean eta
ondoren bi urte Frantziako Ne-
kazal Ikerkuntzarako Institu-
tuak Senperen duen egoitzan.
Egur hilak ibaien ekosisteman
duen eraginaren inguruan egin
zuen doktorego tesia. Duela
urtebete Greenpeaceko Hego
Euskal Herriko arduraduna da.

hagitz konpetitiboa da. Halako zalan-
tzeekin nenbilela iritsi zitzaidan Green-
peacen aritzeko aukera. Neure burua
aurkeztu eta hartu egin ninduten, eta
Lesakatik egiten dut lan.

Zergatik erabaki dute Euskal Herrian bulego bat zabaltzea?

Estrategia kontua da. Erakundeak
1984an zabaldu zuen Madrilgo bulegoa
eta egun 130.000 bazkide ditu Estatuan,
horietarik 11.000tik gora Hego Eus-
kal Herrian (2.300 Nafarroan eta 9.000
EAEn.) Bazkide anitz dira bertako po-
pulazioa kontuan hartuta. Hemen mu-
gimendu handia dago eta beharrezkoa
zela pentsatu zuten bulego bat zabaltzea
eta berdin egin dute Galizian, Katalunian
eta Andaluzian.

Zer du berezia erakunde horrek?

Greenpeace nazioarteko era-
kunde ekologista eta bake-
zalea da, ekonomikoki eta
politikoki independentea,
gobernuen, alderdi poli-
tikoen eta enpresen ez
dohaintzarik ezta pre-
siorik ere onartzen ez
duena. Ez du laguntzarik
hartzen, ezta eskatzen ere.
Guk ekintza zuzenak eta ez
bortitzak egiten ditugu ingu-
ruarekin zerikusia duten arazoenga-
nako arreta deitzeke.

Noiztik ari da lanean?

Lehendabiziko ekintza 1971n egin zu-
ten. Kanadako aktibista batzuk Alaska-
ra joan ziren arrantza-ontzian, AEBak
egiten ari ziren proba nuklear batzuen
aurka protesta egitera. Ez zuten hura
geldiaraztea lortu, baina mediatikoki
izugarritzko sona lortu zuten. Gaur egun,
Greenpeace ingurumenaren aldeko
erakunde garrantzitsuenetako bat da.
Egoitza zentrala Amsterdamen dauka
eta mundu guztiko 55 herrialdetan bu-
legoak ditu. Denera 3 milioi bazkidek
ematen diote sostengua.

Ekintzen ikusgarritasuna da bere ezaugarrietako bat?

Bai. Halako gauza bisualak behar dituzu
arazoa erdigunera ekartzeko. Estatuan,
1978ko eta 1980ko udetan, Rainbow
Warrior lehen itsasontziak Espainian
oraindik mantentzen zen balea-flotari
aurka egin zion, bere harrapaketak gala-
razten saiatzeko.

Greenpeaceren lorpen nagusien ar-
tean Zorita-ko zentral nuklearraren
itxiera dago, deriba sareez egindako
arrantzaren debekua, Kyotoko protoko-
loa, pertsonen aurkako minen eta ba-
rreiatze-bonben debekua eta Algarrobi-
co hotelaren legearen aurkako izaeraren
adierazpena. Euskal Herrian iaz Bilboko
portuan Arabia Saudira bidaltzekoa zen
arma kargamentu baten aurka aritu gi-
nen eta *Plastiko madarikatua* erabilera
bakarreko plastikoen aurkako kanpai-
naren barruan, dragoi bat, munstro bat
ekarri genuen Gaztelugatxera.

Zenbat itsasontzi dituzue orain la- nean?

Hiru: Rainbow Warrior, Esperanza eta
Artic Sunrise. Egungo Rainbow Warrior
hirugarren barkua da, belaontzi jasan-
garria, propio Greenpeacearentzat
egindakoa. Uztailean geldialdia
egin zuen Galizian erakuste-
ko energiaren kontsumoan
alternatiba herritarrak
badaudela, gure Goiener
eta Gure Energiaren tan-
kerakoak. Uste duguna
baino eskumen handia-
goa dugu energia kontsu-
mitzerakoan eta horrek
izugarritzko garrantzia du kli-
ma aldaketa ekiditeko.

Artic Sunrise eta Esperanza ari
dira *Pole to Pole* edo Ipar Polotik Hego
Polorainoko espedizioa egiten, ozeano-
etarako hitzarmen global bat eskatzeko
kanpainan. Artic Sunrise Bilbon gelditu
zen ekainean ozeanoak babesteko beha-
rraz ohartarazteko.

Honetaz gain, zeintzuk dira orain esku artean dituzuen kanpaina ga- rrantzitsuenak?

Orain arte asko ibili gara plastikoaren
inguruan lanean, enpresekin solasean,
alternatibak bilatzen, baina azken hila-
beteotan klima aldaketari heldu diogu
bereziki. Duela urtebete kaleratu zen
IPCC *Intergovernmental Panel on Climate
Change* [klima aldaketa lantzen duen Na-
zio Batuen Erakundeko taldea] aditu tal-
dearen bosgarren txostena eta aski ongi
azaltzen da klima aldaketaren ondorioak
uste zena baino askoz larriagoak izanen
direla. Elkarlanean ari gara *Fridays For
Future* gazteen mugimenduarekin mobi-
lizazioak bultzatzen eta administrazioei
neurri zehatzak eskatzen, klima aldaketa
hain larria izan ez dadin.



Larrialdia erabatekoa dela diote zientzialariek. Zer esan nahi du horrek?

Aldaketa jada ezin dugula ekidin. Aldaketa gertatzen ari da eta orain saiatu behar dugu ez dadin gerta aukeretan larriena. Horretarako agintariek onartu behar dute argi gorria piztuta dagoela. Hori da orain urgenteena eta norabide horretan ari gara azkar lanean Klima La-

rrialdi Aliantzan, beste erakunde eta kolektibo askorekin batera. Gure helburua da ahal den administrazio gehienetan mozioak aurkeztea larrialdi egoera deklaratu eta hainbat neurri onar ditzaten.

Egia da, bestalde, hain helburu zabalak izanik ez zaiela zaila egiten proposamen horiek onartzea. Horrela, berriki ikusi dugu nola Urkulluk klimaren eta ingurumenaren larrialdi egoera deklaratu duen

EAEn, nahiz eta, gure ustez, bere politikak bat ez etorri sinatutakoarekin zenbait alorretan, mugikortasunean kasu.

Zer eskatzen duzue?

Lehenbizi, epe motzean, negutegi efektua duten gasen isurketa murriztea. 2050erako ezarria dago zero isurketen helburua, baina bitartean zer? 2008an, krisi garaian, ikusi genuen nola jaitsi zen maila pixka batean, baina berriro handitu da isurketen kopurua. Nafarroan hirugarren urtez igo da. Beharrezkoa da gobernuek argitzea zer egin behar duten honen aurrean. Energia berriztagarrien erabilera gehiago sustatu beharko lukete, adibidez. Orain arte zailagoa zen [Espainiako Gobernuaren] eguzkiaren zerga dela-eta, baina hori desagertuta, erraztasun gehiago eman beharko lizkietek hiritar eta enpresa txikiei horiek erabiltzeko. Kontsumoari dagokiola, lan egin behar da erabilera bakarreko plastikoa egiten duten enpresekin.

Bestalde, argi dago orain dagoen birziklatze sistemak ez duela ongi funtzionatzen, alde batetik, zabor asko sortzen delako, eta bestetik, zakar ontzietara iristen dena ez delako beti behar bezala birziklatzen. Bilketa sistemetan pausoak eman behar dira eraginkorrago izateko. Orokorrean, munduan sortzen den plastikoaren %30 baino gutxiago birziklatzen da. Ecoembesekoek [ontziak birziklatzen dituen enpresa] diote beraien edukiontzietara iristen denaren %80 birziklatzen dela, baina ikusi beharko litzateke zer gertatzen den iristen ez denarekin.

Hasi beharko genuke gutxiago sortzen, gutxiago kontsumitzen, berrerrabiltzen eta birziklatzen.

Euskal Herrian nola gabiltza alde horretatik?

Orokorrean nahiko aurrerapauso positiboak eman dira, baina horrek ez du esan nahi dena lortuta dagoenik, ezta gutxiago ere. Nafarroan irabazitako borroka da, erraustegia ez da martxan jarri, baina Bizkaian badago eta Gipuzkoako Zubietan ere abian jarri nahi dute. Ingurumeneko guztiz kaltegarriak dira. Berdin gertatzen da mugikortasunean. Hirietan gero eta bide gorri gehiago jartzen ari dira eta bestelako aurrerapenak badira, baina landa eremura joanda izugarriko gabeziak ikusten dira, esate baterako garraio publikoan. Nik hori sufritzen dut Lesakan. Lan asko dago oraindik egiteke.



Nafarroan hondakinen legea lehenda-bizikoetako bat izan zen eta hagitz positiboki baloratu genuen. Hori bai, Madrildik zigorra heldu zen aurrerakoiegia izateagatik.

Nafarroan eta EAEn klima aldaketaren lege berriak ari dira prestatzen. Eraginkorrak izanen dira?

Nafarroako proposamena irakurri genuen eta lege ona iruditzen zitzaigun, nahiz eta helburu batzuk oso orokorrak izan, horrek dakarren ur errean gelditzeko arriskuarekin. Egia esan irakurri ditugun beste batzuekin alderatuta nahi-ko proiektu ona dela esan dezakegu. Ea orain gobernu berria onartzera iristen den. Pentsatzekoa da Madrilen PSOE egonda legea aurrera aterako dela arazo handirik gabe, eta ondoren hor edukiko gaituzte zelatan ea esandakoa betetzen duten, noski. EAEn datorren udarako egin nahi dutela esan dute. Ikusiko dugu.

Kontzientzia eta presioa, lobby baten modura funtzionatzen du Greenpeacek?

Bai. Norbanakoek ezin dugu dena aldatu eta enpresek ez badute presiorik sentitzen ez dute ezer aldatuko. Hagitz eroso daude dirua egiten. Baliabide naturalen ustiaketan onurak ateratzen dituztenak ez dira kalteak jasaten dituztenak, orokorrean. Horrek ikusarazten digu zein injustua den gaur egungo sistema. Ez da soilik ingurumen krisia, krisi soziala baizik.

Aberastasun eta pobrezia-aren deslokalizazioa gertatzen ari da?

Bai. Amazoniako sutea, adibidez, haragiaren kontsumoarekin lotu dugu guk. Batzuentzat lotura antzematea ez da erraza izaten, baina dena uler daiteke ikusten badugu guk hemen kontsumitzen dugun haragi gehiena abeltzaintza industrialetik datorrela eta abere horiek elikatzeke Amazoniatik ekarritako soja erabiltzen dela eta han soja landatzeko lurak lortzeko basoak erretzen dituztela. Haragia hemen ari gara jaten baina kaltea han jasaten dute.

Errudun sentitzen gara. Hori ona da?

Egia esan gero eta gehiago hitz egiten dugu horretaz. Puntu bateraino jendea errudun sentitzea ongi dago. Era berean, denok dugun ahalmenaz kontziente izan behar dugu. Aldaketak jendarteak eginen ditu eta keinu txikietatik hasi behar dugu guztiok ohiturak aldatzen.

Austeritate mentalitatea berreskuratu behar dugu?

Hala da. Honek hartu duen tamaina izugarria da eta martxa mantsotu behar dugu. Kontsumitzeko eredua aldatu behar da. Bizirik iraun nahi badugu gauza gutxiago eta denbora luzeagoan erabili behar dugu. Mugikortasunaren alorrean, adibidez, batzuk esaten dute ohiko erreagaiak erabiltzeari utzi behar-

ko geniokeela eta soilik auto elektrikoak erabili, baina hori ere ez da soluzioa, auto horiek egiteko baliabide asko behar da eta horrek kutsadura handia sortzen du. Pentsatu behar dugu ea guztiok auto bana behar dugun eta beste modu batzuk badauden batera eta bestera ibiltzeko.

Itxurakeria eta zurikeria asko dago ekologiararen inguruan?

Ekologista agertzea modan dago, zailantzarik gabe. Enpresek maiz zuriketa berdea, *greenwashing*, erabiltzen dute irudi korporatiboa hobetzeko eta norbanakoen artean ere oso ohikoa da. Feminismoan eta beste mugimenduetan gauza bera gertatzen da.

Irailaren 27an mundu mailako greba dago deitua. Zer egin behar dugu?

Hainbat aukera daude parte hartzeko. Ez da lan greba, sindikatuek ezin dutelako jendea mobilizazioetara deitu. Ikasleek bai, greba eginen dute, eta besteok manifestazio eta ekintzetan parte hartuko dugu.

Lehen alertan geunden eta orain larrialdi egoeran.

Hamaika urte gelditzen zaizkigu egoera aldatzeko. Tenperatura gora doa, eta komeniko litzateke 1,5 gradu baino gehiago ez igotzea.

Zer gertatuko da hamaika urte pasatakoan berdin jarraitzen badugu?

Dagoeneko nabaritzen ari gara bero kolpeak, lehortekak, suteak. Gero eta maizago gertatzen dira eta gero eta bortitzaagoak dira. Oraingo sute askok hedadura izugarria hartzen dute eta askotan mendean ezin hartu eta zain egon behar izaten dute eguraldia aldatu arte itzali ahal izateko. Horri guztiari ur gabetia larria gehitu beharko diogu. Natura nahiko ziklikoa zen orain arte. Klima aldaketa dela eta natura kaotikoa bilakatzen hasi da.

Eta, hemen, Euskal Herrian, ez gaudela salbu...

Hemen beranduago iritsiko zaizkigu kalte larrienak, baina ez gara salbu. Ez dakigu nola eraginen digun hurrengo hamarkadetan eta beldurra ematen du. Gasen isurketa gelditzen ez badugu ur maila igoko da eta urte gutxi barru Donostian etxea non duzun, agian ur azpian geldituko zaizu. ●